




BASO-IGEL GORRIA, INTSEKTIBORO TRIPONTZIA

Testua eta argazkiak: Joxe Ramon Aihartza

Eskualde epeletako oihan hostogalkorren ezaugarri ekologiko garrantzitsuenetako bat, bertan ekoizten den biomasa begetalaren zatirik handiena zura izatea da. Jakina denez, zuraren osagai den lignina ez dute liseritzen goi-mailako animaliek, eta oihan hauetan ugariena den lehengaia eskuraezina gertatzen zaie, zuzenean behintzat, ornodunei. Nolanahi ere, eta bakterio, onddo eta makina bat ornogaberen bitartekaritza dela medio, zur eta orbeletan bildutako energia horixe izanen da gure pagadi, harizti, amezi eta abarretako makrofauna sostengatuko duena, eta ondorioz, formazio begetal hauetan bizi diren ornodun gehienak harripakariak, eta bereziki intsektiboroak izaten dira. Hauen artean, eta

Baso-igel gorriaren fitxa teknikoa eta Euskal Herrian duen banaketa-mapa.

FITXA TEKNIKOA	BASO-IGEL GORRIA
ESPEZIEA:	<i>Rana temporaria</i>
FAMILIA:	ERRANIDOAK
ORDENA:	ANURUAK
KLASEA:	ANFIBIOAK



Baso-igel gorriaren janzkera kriptikoa eta disruptiboa da oihaneko lurtean dabilela. Beraz, animalia defentsabideetarikoa bat dugu.



landare-ekosistemetako ospel eta hezetasunari esker, anfibioek aukera handiak dauzkate bizitzeko, baso-igel gorria honen adibide dugularik.

Baso-igel gorria (*Rana temporaria*) 10 cm inguruko luzerarainoko



Animalia hau ornogabeez elikatzen den harrapakari gupidagabea dugu, eta bere ehizakiak, besteak beste, intsektuak, armiarmak, anelidoak, moluskuak eta krustazeoak dira.

anuru bikaina dugu. Burua luze baino zabalagoa du, muturra biribila, eta dortsolateralki kokaturiko begi handi nabarmenek itxura xelebrea ematen diote. Tinpanoa ikusi egiten zaio, eta bere diametroa begiarenaren erdia baino zertxobait handixeagoa izaten du. Gainerako anfibioek bezala, baso-igelak ere launa hatz izaten ditu aurreko hanketan, eta bosna berriz atzekoetan, hauek mintz interdigitalez lotuta izaten dituelarik. Oro har baso-igela anfibio sendoa dugu, soin biribilez eta beso eta hanka indartsuz hornitua, eta bere mugimenduak nahikoa azkarrak izaten dira basoko orbelen artean, horrek animalia-aren izaera lehortarra adierazten duelarik.

Bestalde, eta izenak dioenez, animalia-aren kolorazioa arrosa, gorritzat, edota ia laranja ere izan daiteke, beti ere orbain arre-gorritzez apaindua, nahiz eta hauen ugaritasuna eta kokapena ale batetik bestera aldatzeko diren. Nolanahi ere ale guztiek, sudurtzuloetatik hasi eta begia eta tinpanoa barne hartuz, besagaineraino hedatzen den orbain arre iluna izaten dute. Soin-



-adarretan berriz, alde dortsalean zeharkako arrasto ilunak ageri dituzte. Nabarmena denez, janzkera hau kriptikoa eta disruptiboa da oihaneko lurrian dabilela. Beraz animalia-aren defentsabideetariko bat dugu, zalantzarik gabe. Sabeldeari dagokionez berriz, hau gehienetan zuriska, horizta edo arrosa argia izaten da, orbain gorritzat ilunagoz jantzita.

Animalia honen kasuan dimorfismo sexuala ez da nabariegia; besteak beste aho-zorroak —arrak araldian kanturako erabiltzen dituen egiturak— barnekoak izaten bait dira. Normalean, eta anuru gehientsuenetan bezala, emeak handiagoak izaten dira arrak baino, hauek berriz itxura lirainagoa dutelarik. Bestalde, arrak beso

sendoagoak izaten ditu, eta gainera, eskuetako barne aldeko hatza zabalagoa izaten du, beronen alde dortsolateralean kokaturik maskur ilun nabarmena ageri duelarik.

Gainerako anfibio lehortar gehienek bezala, baso-igel gorriak ere bizimodu ilunabartar eta gautarra du, animalia hauek deshidratazioa ekiditeko duten beharra dela kausa, eta ondorioz, egun euritsuetan baino ez dugu ikusiko egunargiz. Jadanik aipatu denez, animalia hau ornogabeez elikatzen den harrapakari gupidagabea dugu, eta bere ehizakiak, besteak beste, intsektuak, armiarmak, anelidoak, moluskuak eta krustazeoak —berezi kukurutxak (*Armadillium vulgare*)— dira.

Eguzkiak indarra galdu eta ilunabarreko freskura nagusitzen denean, baso-igelak orbeletan edo gordio azpitan duen ezkutalekua utzi, eta inguruko bazter guztiak arakatzeari ekiten dio, geldiro, presarik gabe, eta han eta hemen geldituz. Izan ere, eta baso-igelak gauero sekulako ornogabe mordoa harrapatzen duen arren, animalia honek “esperoan” atzematen bait ditu bere ehizakiak: orbela bezain geldirik egonez, bere inguruan mu-



Urtarril edo otsailean zehar araldia, ugaltzeko sasoa, iristen zaio anfibio bitxi honi.



Inguru urtarra atzean utzi eta basoko orbeletarantz abiatzen diren igeltxoek 10 mm inguruko luzera besterik ez dute izaten. Baso-igel gorria hedapen zabaleko espezie paleoartikoa dugu, eurosiberiarra, eta bere habitat nagusiak inguru menditarrean daude



gitzen den edozeri so egoten da ehizakia bere mutur aurrean jarri arte. Orduan, aurreko hanketan tente eta atzekoen bultzadaz, tximistak bezala burua aurreratu eta mihi itsaskorra jaurtitzen dio harrapakinari, berehala hau ahoratu eta atzera eginez. "Afaría" bere ahotzarraren duelarik, osorik irensten du. Lan horretarako begi handiak ixtea lagungarri gertatzen zaio. Izan ere, eta aho-sabaian ia hezurrik ez duenez, begiak ixten dituenean eztarri-rantz bultzatzen bait du ahoan izan dezakeen edozer.

Baldintza normaletan baso-igel gorria animalia lehortarra da. Hala ere, urteko sasoirik beroenetan uretik gertu ibiltzen da gehienbat, eta era berean, goimendietan bizi diren populazioek ere erreka eta iboietan dute beren bizilekua.

Negua iristen denean baso-igelak hibernatu egiten du, harri- edo goroldio-azpitan ezkutaturik, baina hala ere, urtarrik edo otsailean zehar egoera honetatik irten, eta araldia (ugaltzeko sasoa) iristen zaio anfibio bitxi honi. Une horretan, arrak lehenik, eta emeak on-

doren, baso-igelak beren bizilekue-tako putzu eta urmahelatan biltzen dira, kontzentrazio handitan, arrautzak erruteko. Ikuskizuna sekulakoa izaten da: arrak elkarren lehian eta borroka bizian aritzen dira emea harrapatu nahirik, eta zenbaitetan lau eta bost ar ere ikus daitezke eme berari lotuta.

Azkenean, arretariko batek emea anplexu lunbarrez harrapatzea lortzen du, eta eskuetako maskur itsaskorrei esker berari lotuta geratuko da erruketa eta ernalketa burutu arte. Egoera honetan, eta arraren besarkada sendoa-ren laguntzaz, emeak ehundaka edo milaka arrautza erruten ditu. Arrak aldi berean spermioa jariatzen du, ernalketa uretan gertatzen delarik. Horrela kanporatutako arrautzek 2,5 mm inguruko diámetroa izaten dute, eta uretaratu bezain laster hidratatu eta puzten den estalki gelatinotsu multige-

ruzatu batez babesturik egoten dira, arrautza eta estalkiaren diámetroa 10-15 mm bitartekoa izaten delarik. Arrautza guztiak mordoilo bereizgarria eratuz ur-hondoan gertatzen dira, eta hilabeteren buruan jaioko diren zapaburu beltzarane-k beste hiruzpalau hilabete beharko dituzte hazi, metamorfosia burutu, eta lehorrera ateratzeko. Sasoi honetan, inguru urtarra atzean utzi eta basoko orbeletarantz abiatzen diren igeltxoek 10 mm inguruko luzera besterik ez dute izaten.

Baso-igel gorria hedapen zabaleko espezie paleoartikoa dugu, eurosiberiarra, eta bere habitat nagusiak inguru menditarrean daude. Euskal Herrian itsas mailatik hasi eta 1.600-1.700 m-ko altitude bitartean ikusi den arren, Pirinioetan 3.000 m-etako inguruetan ere aurkitu izan da. Nolanahi ere, populazio sendoenak pagadi, harizti, amezti, eta mendiko eta goimendietako larretan garatzen dira.

Animaliaren populazio-estatu-sari dagokionez berriz, hau nahikoa ona da mendi eta goimendietako eremuetan. Aitzitik, altitude baxuetan animaliak ugaltzeko behar dituen putzu eta urmahelak lehorteak kalte egiten die. Eta bestalde, furtibismoak ere atzerakada handia eragin dio igel dotore honi. Izan ere, eta legez babestuta dagoen arren, jateko harrapatzen bait da, horretarako ugalketa-sasoiak (animaliarentzat garrantzi handieneko eta babes txikieneko sasoiak) baliatuz.

Kanporatutako arrautzek 2'5 mm inguruko diámetroa izaten dute, eta uretaratu bezain laster hidratatu eta puzten den estalki gelatinotsu multigeruzatu batez babesturik egoten dira.

